


ELIZAREN KANPO ALDEA

Sarrera nagusia gotikoa da eta berpizkunde garaiko zenbait eranskin ditu; nabaria da Jasokundeko Ama Birjinaren irudia.

Kanpandorrearen oinarria aurretik Erdi Aroko dorretxea zen, eta kapitulu-gela izan zen; bertan biltzen zen udal kontzejua, harik eta 1735 urtean gaur egungo udaletxea eraiki zen arte.

Kanpandorrea XVIII. mendean eraikia da, barroko estilokoa da, eta Francisco de Ibero arkitekto Azpetiarrek egina da. Garai berean, Kale Nagusira begira dagoen horman hiriko armairi ederra jarri zen.

Hegoaldeko fatxadarantz jarraitzen dugu, eta antzinako obrako plano bat topatzen dugu **(10)**, benetako eskalan egina, kanpandorreko apaingarri bati legokiokeena. Sakristiaren ondoko hormatoetan oraindik ageri dira zenbait hilarriren aztarnak, gogora ekartzen digutenak antzinako hilerria hemen kokatua egon zela.




Antzinako obra plano bat hegoaldeko fatxadan.
(Luis Miguel Toribio)

Eliza-burua erdi aroko harresiaren aztamen gainean eraiki zen **(11)**, eta babes ezaugarriak antzematen zaizkio. Horren adierazgarri, hiru absideetan barrena doan erronda-bidea.

Iparraldeko fatxadan, fatxadarik antzinakoenean, hormatutako ate baten gainean hiriko armairi zaharra ageri da **(12)**. Armairiaren deigarria da hormaren gain aldeko gailurreria; gotiko flamigoari dagozkion apaingarriak ditu.


Eusko Jaurlaritzak uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuz eraikin hau Kalifikatutako Kultur Ondarea izendatu zuen.



Gailurreriaren xehetasuna.

ARMA PLAZA Kultur eta turismo informazio gunean informazio gehiago izateaz gain, hiria zein eliza ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko dizkizugu:

- Bezeroen arreta-gunea eta artisau zein kultur izaerako produktuen erakusketa-salmenta gunea.
- Topaketa, erakusketa eta heziketa gunea.
- Hiri osoan barrena egiten diren bisiten abiapuntua.
- Sarrera dohanik du eta egunero zabalik aurkituko duzu.



ARMA PLAZA Kultur eta turismo informazio gunea
Arma Plaza, 9 | 20280 Hondarrribia | Gipuzkoa
www.armaplaza.eus


info@armaplaza.eus (+34) 943 64 36 77
armaplaza@armaplaza.eus (+34) 943 64 46 23



ARMA PLAZA
FUNDAZIOA




"Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mari"
"Parrokia Eliza"
"Santa Maria de la Asunción y del Nazareno"



JASOKUNDE ETA SAGARRONDOKO
ANDRE MARIAREN

PARROKIA ELIZA

HONDARRIBIA
(XV. MENDEA)



Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren parrokia eliza Kale Nagusian dago, hirigune historikoan. XV. mendearen azken herenean hasi ziren eraikitzen, eta XVI. mendearen erdi aldera arte iraun zuten eraikitze lan horiek.

Estilo gotiko berantiarra du, eta denboraren iraganarekin nahasi egin dira eraikinean berpizkunde garaiko estiloa eta barrokoa.

Ekialdetik mendebaldera dago orientatuta, 3 nabeko oinplanoa du, sabai aldean maila ezberdina dutenak, eta bakoitzak abside bana du. Erdiko nabearen oinplanoa gurutze latindarra da, 44 metro luze x 28 metro zabal.

Gure ibilbidea hau izango da:

Eskuinerantz joango gara, eta bertan San Pedro Itsasgizonen Kofradiak 1577an oparitutako bataiarria ikusiko dugu **(1)**

Gorantz begiratuta, gangako giltzarri eta medailoietan hiriko armarriko zenbait osagai daude: bi sirena, lehoi bat, karabela bat, arpoiak jotako balea bat... **(2)**

Aurrerantz jarraituta Arrosarioaren Ama Birjinaren erretaula eta Sakristian sartzeko atea ditugu, biak ere XVII. mendeakoa. Atearen gain aldean hiriko armarrari polikromatua dago. **(3)**

Erretaula nagusia neogotikoa da, 1914an inauguratu zen, eta Jasokunde eta Sagarrondo Ama Birjinari eskainia da. Ama Birjinari tailu napoliarra da, XVIII. mendekoa. Aipagarria da berpizkunde garaiko Ecce Homo-a, txikia izan arren. Gaur egungo erretaularen aurretik beste hiru izan ziren: Erdi Arokoa, ingeles harzuriz egina; berpizkunde garaikoa, Joannes de Iriarte gipuzkoar eskultoreak egina (XVI. mendea); eta neoklasikoa. Elizan barrena sakabanatuak berpizkunde garaiko erretaulako eskulturak daude. Aldare Nagusiaren azpian kripta dago. **(4)**

Erretaularen gain aldean San Pedro dago (erretaularen titularr), eta behe aldean Bihotz Guztiz Santua. **(5)**

Garai batean San Jeronimori eskainia zen kapera gaur egun Guadalupeko Ama Birjinari eskainia da, eta horixe da tenpluari itsatsia den bakarra. Aipagarria da duen izar ganga. **(6)**

ELIZAREN BARRU ALDEA

- 1** Bataiarria.
- 2** Paduako San Antoniorren eta San Migelen erretaulak.
- 3** Arrosarioaren Ama Birjinaren erretaula.
- 4** Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren erretaula.
- 5** San Pedrorren erretaula.
- 6** Guadalupeko Ama Birjinaren erretaula.
- 7** Benesatar familiaren hilobia eta Jesukristo gurutziltzatua.
- 8** Bakartasunaren Ama Birjinaren eta San Joseren erretaulak.
- 9** Izar Gurutze ganga koru azpian.

ELIZAREN KANPO ALDEA

- 10** Obrako planoaren diseinua, hegoaldeko fatxadan.
- 11** Erdi Aroko jatorria duten harresiaren aztarnak
- 12** Hiriko armarrari zaharra.

Atearen ondoan benesatarren hilobiaren aztarnak daude (XV. mendea); oso familia garrantzitsua izan zen, eta hilobian oraindik ere zenbait hitz irakur daitezke, letra gotikoan idatzia. Ondoren Jesukristo Gurutziltzatua, Joannes de Iriarte eskultoreak egina omen dena, berpizkunde erretaularen zati bat bezala. **(7)**

Lurzoruan hilobien aztarnak daude. Gaur egungo egurrezko oholtzaren azpian garai bateko hilobiak daude oraindik ere.

XVIII. mendeko erretaulak Bakartasunaren Ama Birjinari bata eta San Joseri bestea eskainiak dira. Bakartasunaren Ama Birjinaren azpian Kristo etzana ikus dezakegu kristalezko hilobian **(8)**. XVIII. mendeko burdinezko arutzeria dotoreak korura garamatza.

Abesbatza azpiaren ganga ederrean bi figura nabari dira: Santiago erromesa eta hiru aurpegiko Hirutasun bat. Hirutasun hau Iberiar Penintsulan eta Europan geratzen den bakanetakoa bat da. Sarreraren ondoan ur bedeinkaturako bi maskorrak daude, herriko arrantzale batek elizari oparituak. **(9)**

1910 eta 1914 urteen artean eliza zaharberritu egin zen, Ángel Fernández de Casadevante arkitektoaren zuzendaritzapean. Obra horietan Maumejean etxeak egindako beirategiak jarri ziren.



M^a Teresa Austriakoa eta Luis XIV Frantziako errege ezkontza zirenekoa. Ezkontza eliza honetan egin zen ahalordez, eta horren bidez bi erresumen artean Pirinioetako Bake Ituna zigitatu zen, Bidasoa Ibaiko Faisaien irlan sinatuta.